

# APORORDER

## BALIO PROPOSAMENA

Aurretik esan bezala, Goierriko hainbat herri txiki hutsik geratzen ari dira, honetaz ohartu ginenean, hauek aztertzen hasi eta konturatu ginen geratzen diren pertsonen ehuneko handiena pertsona helduez osatuta dagoela. Heldu hauetako askok egunerokotasunean (garraioagatik, gaixotasunengatik...) ezin dituzte haien beharrak asetu, adibidez herri handiago batera joanez; bertan ez baitituzte egunerokotasunean bizirauteko produktu edo zerbitzu nahikorik. Horrez gain, garraio oso eskasa dute hauetan eta ez da batere erraza beste herrietara iristea.

Gure aiton-amonek kontatutakoaren arabera, Euskal Herrian historian zehar eta baita gaur egun ere herri txikien sustapena garrantzitsua izan da. Euskaldunok herri txikien indarra ikusi ohi dugu eta lehen, orain baino gehiago, herri guztiak familia txikiak bezala ziren; baserri bat hemen, beste bat hor eta beste bat han. Bateratasun sentipen hori denborarekin galtzen doa eta berreskuratzeko beharra dago.

Herri txiki hauetan milaka gauza berritu, aldatu edo gehitu daitezke baina guk ere ez dugu nahi herri hauek pertsonen gainezka dagoen herri bihurtzea. Gainera egun batetik bestera ezin ditzazkegu gauza asko aldatu. Halere, zerbait gure esku badago egiteko txikiak dira; baina txikiak ez du esan nahi ez direla esanguratsuak. Landa eremu txiker hauek aldatzeko eta hobetzeko modu bakarra gauza txikietatik hastea da, eta nahiz eta kanpoko jende gehiago etortzea ez lortu, behintzat herritarrak gustura eta zainduta egotea izango dugu guk helburu.

Herri txiki hauetako bat lehen esan bezala Gaintza da. Bertan, autobusa pasatzea behar izanez gero, enpresara deitu behar da. Gainera, ez dago trenik, ezta bizikletak edo patineteak alokatzeko aukerarik ere, eta egongo balitz ere pertsona helduagoentzat ez litzateke erraza izango. Horregatik da gure ideia martxan jartzea garrantzitsua.

Beharra duten pertsona heldu hauei laguntzea da gure asmoa. Laguntza hau eskaintzeko gure ideia honako hau da. Goierriko herri txiki batzuk hautatuko ditugu, handik pasako gara egunero eta han bizi diren aitona-amonen edo beharra duten pertsonen beharrak asetzeko. Horretarako, furgoneta bat supermerkatu bihurtuko dugu, eta hainbat produktu eta botika ezberdin sartuko ditugu barruan. Hala, herritarrak mugitu beharrean, gu eta supermerkatua mugituko gara. Behin herritarrekin konfiantza bat dugunean, botika jakin batzuk behar badituzte eta horiek erosteko mediku-txartela beharrezkoa baldin bada, mota horretako eskaerak ere egin ahal izango dituzte. Eskaera horiek egin ahal izateko, bazkide egin beharko dira hilabetero diru kopuru bat ordainduz.

Proiektu hau *Apororder* deiturikoa da eta herri txikien eta haien herritarren bizirautea bermatu nahi dugu haien ongizatean oinarrituz.

Beraz, gure furgoneta batekin edo gehiagorekin inguruko herri txikietatik bueltak emateko prest gaude. Gure proiektua aurrera eramateko beharra duten pertsonen enkaraguak egiten laguntzeko prest.